

DIRU SARRERAK

Udaletxe desberdinek dauzkate programa desberdinak non diru laguntzak ematen dizkiete enpresa bat sortzen ari diren pertsona ekintzaileei. Enpresa berri bat eta ekintzailea denez horren barruan egongo ginen. Horren adibidea da Barakaldoko udaletxearena den Inguralde enpresa publikoa da. Haien eginklizuna, baldintza batzuk betetzen dituzten enpresei diru kantitate bat ematen da.

Haiekin izan genuen batzarraren bitartez baieztatu genuen zein diru kantitate jaso genezaken. Hau lortu ahal izateko lau baldintza bete behar ditugu, lehenegoa Bizkaian erroldatuta egotea da, eta gure kasuan taldekide guztiak Bizkaian erroldatuta gaude, bigarrena Lanbiden izena eman, eta proiektu hau aurrera eramaten badugu gure izena emango dugu, hirugarren baldintza enpresaren sedea Bizkaian egotea da, hau oso erraza da Inguraldek bulegoak alokatzen dituelako eta alokairua ez da oso handia, eta azkena Inguraldek daukan enpresa sorkuntzari buruzko ikastaro bat egitea da, eta adostu dugu taldekide guztiak egingo dugula.

Basoak baldintza guztiak betetzerakoan, taldeko lehengo kidea ikastaroa amaitzerakoan, 5.000 € jasoko ditugu, ikastaroa egiten duen taldearen taldekide bakoitzeko 2.000 € gehiago. Ikastaroa taldekide guztiak egingo dugunez, Barakaldoko Udaletxea emango digu 13.000 € diru laguntza moduan, eta horrekin gure enpresa hasteko diru nahiko izango dugu.

Enpresa sortuta dugunean, mahai tresna hauek ekoizten dituzten enpresekin lan egingo dugunez, gure diseinuak dauzkaten produktuak saltzeagatik atera duten etekinaren %10 guretzat izango da, eta ez dugunez bakarrik enpresa batekin lan egingo, baizik eta ahal dugun guztiekin, enpresa bakoitzaren %10 hori nahikoa izango da kostuei aurre egiteko eta etekinak ateratzeko. Gainera oraindik gazteak garenez ez dugu diru kantitate handirik behar gure bizitzarako eta honekin nahikoa izango da.